**INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

**7160**

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 19koa, Turismo sailburuordearena, lurralde-mailako turismoa indarberritzeko planetarako laguntzak 2009ko ekitaldian emateko deialdia argitaratzeko dena.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko apirilaren 16ko Aginduak (maiatzaren 21eko EHAA, 98. zk.) lurralde-mailako turismoa indarberritzeko planak burutzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren laguntzen esparrua ezartzen du. 2005eko apirilaren 6ko Aginduak aldatu zuen agindu hori (apirilaren 13ko EHAA, 69. zk.).

Diru-laguntza horiek emateko erabiliko diren dirubaliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko 2009. urteko Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako aurrekontu-ataletatik aterako dira.

Aipatutako aginduaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da hor iragarritako diru-laguntzak emateko, 2009ko ekitaldirako deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematea.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 10. artikuluan ezarritako eskumenaren arabera, hau

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Helburua.

Ebazpen honen xedea da Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko apirilaren 16ko Aginduan (2005eko apirilaren 6ko Agindu bidez aldatua) aurreikusitako laguntzak eskuratzeko 2009ko ekitaldirako deialdia egitea, horren bidez arautzen baitira lurralde-mailako turismoa indarberritzeko planak burutzeko laguntzak.

Helburu horretarako 2.832.346 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2009ko Aurrekontu Orokorretan horretara bideratutako aurrekontu-kredituaren arabera.

Diru-kopuru hori aldatu ahalko da, betiere diru-laguntzei buruz ebazpena eman aurretik, eskatutako laguntzak guztira zenbatekoak diren ikusi ondoren, eta, baldin eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak beste programa batzuk burututakoan aurrekontuko diru-kopururik ahitu gabe geratzen bada. Horrelakorik gertatuz gero, egoera horren berri jakinaraziko da Turismo sailburuordearen ebazpena argitaratuta.

***2. artikulua.***– Betekizunak.

Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde-mailako turismoa indarberritzeko planak burutze-

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

**7160**

RESOLUCIÓN de 19 de noviembre de 2008, de la Viceconsejera de Turismo, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas para Planes de Dinamización Turística de carácter Territorial, para el ejercicio 2009.

La Orden de 16 de abril de 2003, del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, (BOPV n.º 98 de 21 de mayo), modificada por la Orden de 6 de abril de 2005 (BOPV n.º 69, de 13 de abril), establece el marco de ayudas de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco destinadas a la realización de Planes de Dinamización Turística de carácter Territorial.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009.

De conformidad a lo establecido en el artículo 10 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 10 de la orden de referencia,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Objeto.

Es objeto de la presente resolución, la convocatoria para el ejercicio 2009 de las ayudas previstas en la Orden de 16 de abril de 2003 del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, modificada por la Orden de 6 de abril de 2005, por la que se regulan las ayudas para Planes de Dinamización Turística de carácter Territorial.

Para este fin se destinará un total de 2.832.346 euros. Todo ello de conformidad al correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 2009.

Este importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante resolución de la Viceconsejera de Turismo.

***Artículo 2.***– Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de 16 de abril de 2003 del Consejero

ko laguntzak arautzen dituen 2003ko apirilaren 16ko Aginduan (2005eko apirilaren 6ko Aginduaren bidez aldatua) aurreikusitako laguntzak jaso ahal izateko, eskatzaileek agindu horren 3. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

***3. artikulua.***– Eskabideak eta epea.

1.– Eskabidearen eta inprimakien ereduak Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde-bulegoetan jaso daitezke, edo web-orri honetan: www.euskadi.net/turismo.

2.– Eskaria egin nahi dutenek, laguntzaren bat jaso ahal izateko, eskabide-orria eta gainerako agiri osagarriak Turismo Administrazioko eta Lehiakortasuneko Zuzendaritzari zuzenduta bidali beharko dituzte, eta, aurkeztu, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoetan aurkeztu behar dituzte, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan.

3.– Eskabideak aurkezteko epea deialdia egiteko ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eta 2009ko otsailaren 16an bukatu.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduarekin bat etorriz, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzkoa, ebazpen honetan jasotzen diren laguntzak emateko EAEko Aurrekontu Orokorretan 2009ko ekitaldirako kreditu egokia eta nahikoa egon beharko du.

2009rako EAEko Aurrekontu Orokorretan azkenik finkatzen den kreditua ebazpen honetako 1. artikuluan jasotako zenbatekoa baino txikiagoa balitz, aldatu egingo litzateke benetan dagoen zenbatekora egokitzeko. Hori jakinarazteko Turismo sailburuordeak ebazpena eman beharko du.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Deialdia egiteko ebazpen hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

***Bigarrena.***– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 19a.

Turismo sailburuordea,
KORO GARMENDIA GABETE.

de Industria, Comercio y Turismo, modificada por la Orden de 6 de abril de 2005, por la que se regulan las ayudas para Planes de Dinamización Turística de carácter Territorial, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 3 de la Orden de referencia.

***Artículo 3.***– Solicitudes y plazo.

1.– Un modelo de solicitud y de formularios será facilitado por cualquiera de las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, o podrá obtenerse en la web: www.euskadi.net/turismo.

2.– Los solicitantes, deberán dirigir la solicitud y demás documentación complementaria a la Dirección de Administración Turística y Competitividad, presentándolas en las correspondientes Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, o en los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente resolución de convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el 16 de febrero de 2009.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

De conformidad con la Orden de 26 de abril de 2007, del Departamento de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la concesión de las ayudas a que se refiere la presente Resolución, queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del ejercicio 2009.

En el supuesto de que el crédito que figurase finalmente en los Presupuestos Generales del País Vasco del ejercicio 2009 fuese inferior al importe previsto en el artículo 1 de la presente Resolución, se modificará el mismo a fin de adecuarlo al importe realmente existente. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante la correspondiente resolución de la Viceconsejera de Turismo.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– La presente resolución de convocatoria surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda.***– Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de noviembre de 2008.

La Viceconsejera de Turismo,
KORO GARMENDIA GALBETE.